

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

6338

45/2021 DEKRETUA, abenduaren 3koa, lehendakariarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen idazkari nagusia kargutik kentzea xedatzen duena.

Lehendakariaren uztailaren 9ko 23/2019 Dekretuaren bidez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko idazkari nagusia izendatu zen.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Batzorde Iraunkorrek, 2021eko azaroaren 29an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuen Batzordearen idazkaria nagusiaren erreleboa eskatzea.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 17. artikuluan eta batzorde horren araudiaren 32. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, batzordearen presidentek proposatuta, eta batzordekideei entzun ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lorea Soldevilla Palazuelos andrea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen idazkari nagusiaren kargutik kentzea, eta egin duen lanagatik eskerrak ematea.
2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 3an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.